

## UDAL BATZARRAREN AKTA

**Akta zenbakia:** 3/2002

**Bilera data:** 2002-03-07

**Bilera mota:** Ohizko osoko bilkura

**Deialdia:** Lehenengoa

**Ordua:** 19:39 – 20:17

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

### **Bertaratutakoak:**

**Alkatea:** Jose M<sup>a</sup> Sarasola Goenaga

**Alkate orde:** Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka

### **Zinegotziak:**

Miren Maite Aizpurua Etxeberria

Manuel Odriozola Iruretagoiena

Mikel Errazkin Agirrezabala

Rafael Uribarren Axpe

Jose Ignacio Otermin Garmendia

Mikel Zubillaga Galarraga

Jose Martin Uzkudun Agirre

### **Idazkaria:**

Iñaki Arrue Espinosa

### **Aztergaiak:**

1.- Udalbatzarrak 2001eko azaroaren 6ean egindako bilkurari dagokion aktaren onespena.

2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea, 40 zenbaitik 72 zenbakira.

3.- Idazkari-Kontuhartzailea euskalduntze ikastarora joateko bere lanpostutik liberatuz alkateak ebatzitako dekretua berrestea.

4.- Bake Epaitegirako idazkaria izendatzeko proposamena.

5.- EBEL Elkarteari dirulaguntza emateko proposamena.

6.- Galde-erreguak.

## **Esan-eginak eta erabakiak:**

### **1.- Udalbatzarrak 2001eko azaroaren 6an egindako bilkurari dagokion aktaren onespena.**

2001eko azaroaren 6an egindako bilkuraren akta alkateak irakurri du eta eztabaidarik egin gabe eta inongo eranskinik gabe dagoen dagoenean onartu du udalbatzak.

#### **Erabakia**

Bertaratutakoek 2001eko azaroaren 6an egindako bilkuraren akta aho batez onetsi da.
---

### **2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea, 40 zenbakitik 72 zenbakira.**

Alkateak egindako ebazpenen berri eman du, ebazpen horien zenbakiak 40tik 72 bitartekoak izanik, biak barne.

EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Otermin zinegotzi jaunak hitza hartzen du 43. Dekretuari dagokionez bere kezka adierazteko Gaztetxeko lokalaren argi-indarra ordaindu gabe izan delako eta jakiteko nola dagoen gai hau.

Mikel Errazkin zinegotziak erantzuten dio Anoetako Gazte Asanblada elkartearekin harremanetan daudela gai hau konpontzeko eta laister konponbide bat emango zaiola arazo honi.

Jarraian, Otermin zinegotzi jaunak berriro hitza hartzen du, 49. Dekretuari dagokionez galdetzeko zein irizpide hartu diren bi lanpostu betetzeko lehiaketa-oposizioko deialdian kontuan hartzen diren puntuazioak.

Manu Odriozola zinegotziak erantzuten dio HAEETIK ateratakoak direla.

#### **Erabakia**

40 zenbakitik 72 zenbakirako dekretuen berri eman da eta, beraz, udalbatza jakinaren gain geratu da.
--

### **3.- Idazkari-Kontuhartzailea euskalduntze ikastarora joateko bere lanpostutik liberatuz alkateak ebatzitako dekretua berrestea.**

Alkateak 2002ko otsailaren 8an Nekane Agirresarobe Etxeberria Idazkari-Kontuhartzailea euskalduntze ikastarora joateko bere lanpostutik liberatuz alkateak ebatzitako dekretua berresteko proposatzen die udalbatzako zinegotziei.

Aipatu ebazpenaren aurrean EAJ-PNV/EA koalizioko kidea den Uribarren zinegotzi jaunak adierazten du ez dagoela idazkari lanpostuaren ordezkapena erabakitzen duen dekretua, bakarrik aurreko idazkariaren liberatzeko ebazpena baizik.

Alkateak, idazkariaren aholkuaz, azaltzen dio udaleko lehendakariaren proposamenaz idazkariaren izendapena Foru Aldundiak egiten duela.

Jarraian, alkateak azaltzen du idazkari-kontuhartzailearen aukeraketa prozesua nolakoa izan den eta nola udala aurrera eramaten ari den Euskara Planaren barruan kokatzen dela liberazio honen eta ordezkapenaren beharra.

EAJ-PNV/EA koalizioko kidea den Uribarren zinegotzi jaunak hitza harturik adierazten du bere kezka kontu publikoak likidatu gabe daudelako eta, beraz, bere ustez oraingoa ez dela momenturik egokiena idazkari-kontuhartzailea ordezkatzeko.

#### **Erabakia**

Udalbatzarrak, zinegotzi guztien aho batez, 2002ko otsailaren 8an Nekane Agirresarobe Etxeberria Idazkari-Kontuhartzailea euskalduntze ikastarora joateko bere lanpostutik liberatuz alkateak ebatzitako dekretuaren akordioa berretsi du.
--

### **4.- Bake Epaitegirako idazkaria izendatzeko proposamena.**

Alkateak hitza hartzen du azaltzeko 2002ko urtarrilak 16 Garbiñe Larrarte Luluaga andereak Anoetako Bake Epaitegiko idazkari kargua utzi zuela, eta horren ondoren, bake epaitegirako bi izangai aurkeztu direla (Javier Garduño Tena eta Kristina Navas Iburguren) idazkari lanak egiteko eta Eusko Jaurlaritzari proposatu behar zaiola bi horien arteko bat izendapena egin dezan.

Bi izangaien “curriculum vitae”-ak udalbatzak aztertzen ditu eta, azkenik, Kristina Navas Iburguren aukeratzea erabakitzen du

Era berean, alkateak aipatzen du aurreko idazkariak lan egiteari utzi zionetik orain arte, Javier Garduño jaunak idazkari lanak egin dituela eta, beraz, proposatzen du berari dagokion zati proportzionala ordaintzea.

Azken gai hau mahai gainean gelditu da alkateak hartuko duen ebazpenaren zain.

#### **Erabakia**

Udalbatzarrak, zinegotzi guztien aho batez, onartu du

1. Garbiñe Larrarte Luluaga andereak Anoetako Bake Epaitegiko idazkari kargua uztea ontzat ematea.
2. Kristina Navas Iburguren anderea Anoetako Bake Epaitegiko idazkari izendatzea.
3. Eusko Jaurlaritzako Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Sailari erabaki honen berri ematea dagokion ebazpena onar dezan.

#### **5.- EBEL Elkarteari dirulaguntza emateko proposamena.**

Manu Odriozola zinegotzi jaunak, hitza harturik, aurkezten du 2002ko urtarrilaren 30ean Kulturako Batzordean akordaturako proposamena: EBEL Emakume Baserritarren Elkartek emakume baserritarren lana errekonozitzeko eta gizarteratzeko proiektua finantzatzeko, 160.000 pta. eta eskultura erakusketa bat egiteko 25.000 pta. ematea proposatzen dituelarik. Proiektu honen barruan 6.000.000 pezetako balioa duen metalezko eskultura erraldoia, Juan Gorritik eskultoreak egindakoa eta “Baserriko argia” izenekoa hain zuzen, egin nahi da eta 100 egurrezko eskultura txikien erakusketa ere egiten ari da.

#### **Erabakia**

Udalbatzarrak, zinegotzi guztien aho batez, onartu du

1. EBEL elkarteari 160.000 pezetako (961,62 euroko) dirulaguntza ematea emakume baserritarren lana eta gaia gizarteratzeko proiektua finantzatzeko.
2. Juan Gorriti eskultoreak egindako egurrezko 100 eskultura txikien erakusketa Anoetara ekartzeko 25.000 pezetako (150,25 euroko) gastua onartzea.

#### **6.- Galde-erreguak.**

Ez da aipamenik egiten.

## **Premiazko gaitzat, mozioa gizarte zerbitzuetako hitzarmenari buruzkoa.**

Miren Maite Aizpurua Etxeberria zinegotziaren eskariaz, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak 2002ko otsailaren 26an egindako bileran erabakitako proposamena onartzea mahigaineratzen da.

Aurkeztu mozioa Tolosaldeko gizarte zerbitzuetako hitzarmenari buruzkoa da, honako akta honen espedientean eransten delarik.

Udal batzarrean aztertu eta eztabaidatu ondoren, EAJ-PNV/EA koalizioko kidea den Uribarren zinegotzi jaunak alkateari eskatzen dio mozioan azaltzen diren datuak (batez ere, finantzaketakoak) konprobatu eta egiaztatzeko denbora behar duela eta, beraz, mahi gainean uzteko gai hau.

### **Erabakia**

Udalbatzarrak, zinegotzi guztien aho batez, erabakitzen du Tolosaldeko gizarte zerbitzuetako hitzarmenari buruzko mozioa mahi gainean uztea hurrengo osoko bilkura batean eztabaidatu eta bozkatua izan dadin.
--

Bilkura amaiturik, agiri hau egiten dut lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatu eta erabakitakoaz fede emateko.

Anoeta, 2002ko martxoaren 7a

Iñaki Arrue Espinosa  
Idazkaria.

O.e.  
Jose M<sup>a</sup> Sarasola Goenaga  
Alkatea